

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

LURRALDE OREKAREN SAILA

60/2020 Foru Agindua, martxoaren 25ekoa, zeinaren bidez baimentzen baita Guadalupe Fernández de Olanok behin-behineko diruzain eginkizunak egiteari uztea, udal horretan hala eskatuta, udal horretako langile gisa baja eragin duelako

Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Orekaren Saileko foru diputatuaren urtarrilaren 21eko 2/2016 Foru Aginduaren bidez, zeina 2016ko urtarrilaren 29an ALHAOn (11. zenbakia) argitaratu baitzen, Guadalupe Fernández de Olano izendatu zen Burgeluko Udalean diruzaintzako eginkizunak behin-behinean betetzeko.

Udal horrek idazki bat bidali dio Arabako Foru Aldundiari, jakinarazteko funtzionario horrek bere borondatez uko egin diola lanpostuari 2020ko matxoaren 9tik aurrerako eraginarekin, eta orobat adierazi dio gaur egun ez dagoela eginkizun horiek bete ditzakeen inor eta, beraz, eskatu dio Arabako Foru Aldundiak bere funtzionarioetako bat izenda dezala korporazioan diruzaintza eginkizunak betetzeko.

Eskaeraren oinarritzat hartu du indarrean dagoen gaikuntza nazionaleko toki administrazioko funtzionarioen lege araubidea arautzen duen martxoaren 16ko 128/2016 Errege Dekretuak xedapen iragankorretatik seigarrenean xedatutakoa; hain zuzen, honako hau dio, diruzaintzako eginkizunen araubide iragankorrari buruz:

“Toki korporazioetan, baldin eta idazkaritza hirugarren mailakotzat sailkatuta badago, salbuespenez, idazkari lanpostuaren titularrak beteko ditu diruzaintzako eginkizunak, baldin eta ezin badira eginkizun horiek gauzatu diruzaintzen elkartzeko bidez edo ezin badituzte bete probintziako diputazioek, erakunde baliokideek edo probintzia bakarreko autonomia erkidegoek, beren laguntza teknikoko zerbitzuen bidez, edo metaketa bidez edo lankidetzaren lanpostuen bitartez, edo ezin baditu eginkizun horiek egin toki erakundeko bertako funtzionarioen batek.”

Arabako Foru Aldundiak, baina, gaur egun ezin du bere funtzionarioirik izendatu lanpostu hori betetzeko, ez dagoelako inor diruzaintzako eginkizun horiek betetzeko.

Horregatik, ondorioztatzen da ezen, kasu honetan, ezin denez ezarri transkribatutako xedapen iragankorretatik seigarrenean xedatutakoa, eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 92 bis artikuluko 2. apartatua aldatu ondoren irailaren 11ko 10/2015 Errege Dekretuak, diruzaintzako eginkizunak idazkari-kontuhartzaile lanpostuaren titularrari dagozkiola.

“92 bis artikulua. Gaikuntza nazionaleko toki administrazioko funtzionarioak

1. Toki korporazio guztietan gaikuntza nazionaleko toki administrazioko funtzionarioentzat gordetako administrazio erantzukizuneko nahitaezko funtzio publikoak dira:

a. Idazkaritzakoak, fede publikokoak eta nahitaezko lege aholkularitzakoak barne.

b. Ekonomia-finantzen eta aurrekontuen kudeaketaren barneko kontrol eta ikuskapenekoak, eta kontabilitatekoak, diruzaintzakoak eta dirubilletakoak.

Nolanahi ere, biztanle kopuru handiko udalerriei dagokienez, kontuan hartuko da lege horrek X. tituluaren xedatutakoa, eta Madril eta Bartzelonari dagokienez, Madril hiriburuari eta bere araubide bereziari buruzko uztailaren 4ko 22/2006 Legeak eta Bartzelonako udalerrien araubide berezia ezartzen duen martxoaren 13ko 1/2006 Legeak jasotako erregulazioa, hurrenez hurren.

2. Gaikuntza nazionala duten toki administrazioko funtzionarioen eskala honako azpieskala hauetan banatzen da:

- a. Idazkaritza; hari dagozkio aurreko 1.a apartatuan jasotako eginkizunak.
- b. Kontuhartzailletza eta diruzaintza; hari dagozkio aurreko 1.b apartatuan jasotako eginkizunak.
- c. Idazkaritza eta kontuhartzailletza; hari dagozkio 1.a eta 1.b." apartatuetan jasotako eginkizunak.

Aurretik azaldutako guztia ikusirik, eta abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauaren 40. artikulua ematen dizkidan eskumenak erabiliz, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Burgeluko Udalak eskatuta, kargutik kentzea Guadalupe Fernández de Olano, udal horretako langile gisa hango diruzaintzako eginkizunak behin-behinean betetzeko borondatezko baja eragin duelako.

Bigarrena. Kargu uzte horrek 2020ko martxoaren 9tik aurrera izango ditu ondorioak.

Hirugarrena. Foru agindu hau jakinaraztea Burgeluko Udalarari eta Eusko Jaurlaritzaren Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzari, eta hura ALHAOn argitaratzeko agintzea.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko martxoaren 25a

Lurralde Orekaren Saileko foru diputatua
IRMA BASTERRA UGARRIZA

Lurralde Orekaren zuzendaria
JESUS MARÍA GUINEA DÍAZ DE OTALORA